



# EUSKAL KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZA

---

2017ko hirugarren hiruhilekoa



**LABORAL**  
kutxa

# AURKIBIDEA:


## EDUKIAK ETA EMAITZAK

Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren bilakaera	
.....	
.....	3
Euskal kontsumitzaileen konfiantzaren osagaiak	
.....	
.....	7
Euskal kontsumitzaileen erosketa-erabakiak	
.....	
.....	13
Eranskina - Indizeak	
.....	

# KONTSUMITZAILEEN KONFIANTZAREN BILAKAERA

---

- euskal familien konfiantzaren atzerapauso arina
- Espainiako familien konfiantza-balioaren antzeko balioak
- Alemaniak konfiantza hobetu du, Frantziak eta Erresuma Batuak ez




# 1 euskal familien konfiantzaren atzerapauso arina

2017ko hirugarren hiruhilekoan, euskal familien konfiantza-indizea neutraltasun balioan (0,4) kokatu da eta bigarren hiruhilekoan erregistratutako berreskurapena mugatu dela ikus daiteke.

Atxikitako grafikoari jaramon eginez, euskal familien konfiantza-adierazleak zerotik gertuko balio sekuentzia erakutsi du sei hiruhileko kontsekutibotan eta 2015era arte erregistratutako balio negatiboak utziz.

Orotara, 2017ak berreskurapenerako bide gorabeheratsua erakutsi du, eta urteko bigarren hiruhilekoaren hobekuntza esanguratsua hirugarren hiruhilekoaren etenaldiak moztu du, euskal kontsumitzaileen zuhurtzia azaleratuz.

## Kontsumitzaileen konfiantza. EAE




## 2 | Espainiako familien konfiantza-balioaren antzeko balioak

Euskal familien konfiantzaren berreskurapena mugatzea Estatuako familienarekin bat dator: balio optimista arinetan (1, ehuneko -1 puntu) mantentzen dira, euskal baliotik gertu (0,4), hain zuzen.

EB-28 osotasunean, familien konfiantza-adierazleak ere atzerakada arina jasan du, balio positiboak iristea lortu gabe (-2, ehuneko -1 puntu).

### Kontsumitzailearen konfiantza. EAE, Estatu eta EB-28\*



\* EB-28ren eta Espainiaren 2017ko III hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira; uztailako eta abuztuko datuen batez bestekoari dagozkio.

### 3 | Alemaniak konfiantza hobetu du, Frantziak eta Erresuma Batuak ez


Frantziako familien artean, konfiantza puntu bat bakarrik hobetu da 2017ko bigarren hiruhilekoarekin alderatuta, eta oraindik ere balio ezkorretan geldituta dago (-4); hala ere, azken lau hiruhilekoek hobekuntza erakutsi dute.

Bestalde, Erresuma Batuko familien konfiantzaren berreskurapen-falta mantentzen da, bigarren hiruhilekoko datua pixka bat okertuz (-7, -1p).

Azkenik, Alemaniako konfiantza hobetuz doa (4, +0p) eta aztertutako hiru herrialde handietako sekuentzia hoberena erakusten du.

Kontuan izan beharrekoa: egonkortasun politikoa eta emaitza ekonomiko positiboak (hazkunde ekonomiko eta enplegua) Alemaniaren aldeko dira, Frantziaren eta Erresuma Batuen kontrara.

#### Kontsumitzailearen konfiantza. EAE eta erreferentziazko herrialdeak



\* Frantziaren, Erresuma Batuen eta Alemaniaren 2017ko III. hiruhilekoko datuak behin-behinekoak dira; uztaileko eta abuztuko datuen batez bestekoari dagozkio.

# EUSKAL KONTSUMITZAIILEEN KONFIANTZAREN OSAGAIAK

---

- euskal familien ustez ekonomia orokorrak hobetzen jarraituko du
- enpleguaren berreskurapena mantenduko da
- etxebizitzaren ekonomiaren gaineko igurikimen negatiboarekin (oraindik)
- aurrezki-igurikimenak susperraldirik ez izatearekin bat dator
- atzerapausoa gorabehera, euskal familien konfiantzak positiboa izaten jarraitzen du


## 4 euskal familien ustez ekonomia orokorrak hobetzen jarraituko du

Ekonomia orokorraren garapenari buruzko igurikimenen adierazleak bigarren balio positiboa (9) errepikatzen du, nahiz eta bigarren hiruhilekoan erregistratutakoarena baino baxuagoa den (12) eta euskal familiek ekonomia orokorrak hobetzen jarraituko duen ustea dutela ziurtatzen du.

Adierazlearen balioak datozen hamabi hilabeteetarako ekonomia orokorraren garapenari dagozkion hiru igurikimen sintetizatzen ditu: bi etxetik batek berdin jarraituko duela uste du (% 50, ehuneko -7 puntu), hirutik ia batek hobetu egingo duela uste du (% 28, ehuneko -5 puntu) eta lautik ia batek, okerrera egingo duela (% 22, ehuneko +12 puntu).

Laburtuz, hori -familia kopuru esanguratsu baten- epe ertainerako ekonomia orokorraren garapenaren aurreikuspenek une honetako balorazioa hobetzen dutela ziurtatzen duen bigarren datu positiboa da.

### Ekonomia orokorrari buruzko egoeraren igurikimenak






## 5 | enpleguaren berreskurapena mantenduko da

Datozen 12 hilabeteetako enpleguaren garapenari buruzko igurikimenek positiboak izaten jarraitzen dute (?) baina 2017ko bigarren hiruhilekoan lortutako emaitza okertu da (23).

Grafikoak euskal familiek enpleguari buruz duten konfiantzaren hobekuntza erakusten du; izan ere, 2015eko bigarren hiruhilekotik etengabe positiboa da.

Zerk azalduko luke hirugarren hiruhileko honetan erregistratu den atzerapausoa? Baliteke, galdeketa egiteko momentua, Gizarte Segurantzaren afiliazioaren abuztuko datuekin (919.073) eta erregistratutako langabeziarekin (133.210) bat etorri da; uztailleko datuak okertu baitira (% -1,3 eta + % 1,8), nahiz eta 2016ko abuztukoak hobetu diren (17.474 afiliatu gehiago eta 9.904 langabetu gutxiago).

### Langabeziarekiko igurikimenak




I H II H III H IV H I H II H III H IV H I H II H III H IV H I H II H III H  
2014 2014 2014 2014 2015 2015 2015 2015 2016 2016 2016 2016 2017 2017 2017

## 6 | etxeko ekonomiaren gaineko igurikimen negatiboarekin (oraindik)

Etxebizitzaren egoera ekonomikoaren igurikimenean adierazleak negatiboa izaten jarraituko du (-5 puntu) eta are bigarren hiruhilekoko baina baxuagoa da (-3), beraz, neutraltasunaren barnean kokatuta jarraitzen du, baina balio positiborik lortu gabe.

Egiaz, ikuspegi zabalagotik begiraturik, 2017ko lehen hiru hiruhilekoen batz bestekoa -5 puntukoa da, 2016ko batz bestekoaren oso antzekoa (-6), baina, profil irregularrekoagoa, etxeko-ekonomiaren hobekuntzari buruzko familien zuhurtzia azaleraturik.

### Etxeko ekonomiaren egoerari buruzko igurikimenak




## 7 | aurrezki-igurikimenak susperraldirik ez izatearekin bat dator

Euskal familien aurrezteko gaitasunaren inguruko igurikimen-adierazleak pesimismo balioa mantentzen du (-9) baina kontuan hartutako hamabost hiruhilekoetako erregistrorik onena da eta, lehen aldiz, bi digitutik beherakoa.

Familien aurrezteko gaitasunaren balioaren hobekuntza txiki horretan eragiten duten faktoreen artean, enpleguaren hobekuntza eta urtean zehar etengabe hobetu den ekonomiaren balorazio orokorra daude. Hala ere, igurikimen negatiboa izaten jarraitzen du, eta etxeko ekonomiaren balorazioarekiko interdependentea, ez baitu lortzen berreskuratzea eta balio positiboetan jartzea.

### Aurrezteko gaitasunari buruzko igurikimenak



## 8 atzerapausoa gorabehera, euskal familien konfiantzak positiboa izaten jarraitzen du

2017ko hirugarren hiruhilekoan euskal familien konfiantza-adierazlea 0,4 puntuan kokatu da, eta bigarren hiruhilekoko atzerapausoa gorabehera (5), 2014az geroztiko bigarren balio positiboa da.

Euskal familien konfiantzaren hobekuntzaren jarraikortasuna ekonomia orokorraren (9, ehuneko +3 puntu) eta enpleguaren (7, ehuneko +16 puntu) igurikimen positiboekin bat dator, nahiz eta bi kasuetan bigarren hiruhilekoko emaitzak moteldu diren eta kontsumitzailearen konfiantzaren adierazle orokorraren atzerapauso arina erakusten duten.

Adierazle partzial horiei, (oraindik) negatiboa den eta balorazioan aurrerapauso txikia egin duen etxebizitzako ekonomiaren gaineko (-5, ehuneko -2 puntu) eta aurrezteko gaitasunaren gaineko (-9, ehuneko +3 puntu) igurikimena gehitu behar zaie.

2017ko hirugarren hiruhilekoko emaitzak - urteko laugarrena falta da oraindik-, 2014az geroztik lehen aldiz, urteko bataz bestekoa positiboa litzatekeela aurreikusteko aukera eskaintzen du (1).

### Familien konfiantzaren indizea eta haren osagaiak. EAE


Indizea	2014	2015	2016	IV H-16	I H-17	II H-17	III H-17
Familien konfiantza	-20	-6	-5	-3	-3	5	0,4
Ekonomia orokorra	-21	-4	-7	-5	-3	12	9
Etxeko ekonomia	-15	-9	-5	-3	-8	-3	-5
Langabeziaren bilakaera	-18	3	9	9	10	23	7
Aurrezteko gaitasuna	-23	-16	-12	-12	-12	-12	-9



# EUSKAL KONTSUMITZAILEEN EROSKETA-ERABAKIAK

---

- familia gehienek ez dute prezioen gorakadarik aurreikusten
- neutroak dira erosketa uneko balorazioari dagokionez
- "erosketa handien" igurikimena jadanik positiboa da
- etxebizitza eta autoa erosteko asmoa egonkortu da
- familien kontsumo-egoeraren balantze hobearekin




## 9 familia gehienek ez dute prezioen gorakadarik aurreikusten

Familien erditik gora uste du prezioek azken 12 hilabeteotan izan duten antzeko igoera izango dutela (% 57), azken hiruhilekoan ehuneko hori nabarmen handitu delarik. Halaber, familia gutxiagok uste du prezioek igoera handiagoa izango dutela (% 34tik % 25era) eta mantendu egin da polikiago igoko direla uste dutenen ehunekoa (% 15etik % 18ra).

Honela, datozen hamabi hilabeteetarako prezioen garapenaren inguruko igurikimen-adierazlea negatiboa izaten jarraitzen du (-6), baina aurreko bi hiruhilekoetako baino txikiagoa (-18 eta -29, bigarren eta lehen hiruhilekoetan). Azken finean, euskal familiek, orokorrean ez dute tentsio inflazionistarik aurreikusten, beraz prezioen egonkortasun-adierazlea hobetzen da.

— Zure ustez, nola haziko dira<sup>1</sup> prezioak hurrengo 12 hiletan? —  
(pertsonek %-a)



<sup>1</sup> Azken hamabi hilabeteekiko

## 10 | neutroak dira erosketaren uneko balorazioari dagokionez


Nola baloratzen duzu, oro har, etxeko artikuluak erosteko egungo unea (altzariak, etxetresna elektrikoak, tresna elektronikoak...)?

Erosketa-unea etxebizitzaren gastu-gaitasunari buruz hausnartzeko galdera da (zer behar dut, zein eskaintza daude gaur, zer eros dezaket...): etxebizitzaren bi herenek, erosketa-unea axolagabe bizi dute (% 63) eta une ona (% 16, ehuneko 0 puntu) edo txarra dela (% 19, ehuneko +1 puntu) uste dutenen kopuruan ez dago ia aldatetarik.

Era bateratuan, erosketa-unearen balorazio-adierazlea negatiboa da (-5) eta ia balioa errepikatzen du aurreko hiruhilekoari dagokionez (-3). Hau da, familiek ez dute uste une hau egokia denik gastua hedatzeko.

### Erosteko unearen balorazioa<sup>1</sup>

(pertsonek %-a)



<sup>1</sup> Azken hamabi hilabeteekiko


## 11 “erosketa handien” igurikimena jadanik positiboa da

Nolakoak uste duzu izango direla etxeko gastu edo erosketak (altzariak, etxetresna elektrikoak, etxeko konponketak eta abar) datozen 12 hilabeteetan<sup>1</sup>?

2017ko hirugarren hiruhilekoan familiako erosketa handien adierazlea balio positibora iritsi da ia eta -2 lortuta, 2014az geroztiko erregistrorik onena da. Negatiboa da oraindik, baina aurreko hiruhilekoarekiko hobetu da (ehuneko +6 puntu).

Datu hau erosketak mantenduko dituzten familien gorakadaren (% 68, ehuneko +10 puntu) baina, bereziki, gutxituko dituela adierazten duen familiak gutxitzearen (17, ehuneko -9 puntu) emaitza da.

Zure ustetan, nolakoak izango dira etxerako erosketak datozen 12 hiletan<sup>1</sup>



<sup>1</sup> Azken hamabi hilabeteekiko




## 12 | etxebizitza eta autoa erosteko asmoa egonkoritu da

2017ko hirugarren hiruhilekoan euskal familien % 3,2k datorren urtean etxebizitza erosteko asmoa erakutsi du - erosketa ziurtasunez adierazten duen taldea murrizteak baldintzatua-. Orokorrean, 2015ean 2016an baino handiagoa da (% 1,8 bietan).

### — Etxebizitza erosteko asmoa —


(hurrengo hamabi hiletarako) (pertsonek % -a)



Datozen 12 hilabeteetan autoa erosteko asmoa ia puntu bat areagotu da eta familien % 6,4k aldarrikatu dute: % 4,8k asmo argia erakutsi dute eta % 1,6k, aldiz, ez hain argia. Joandako lau hiruhilekoetan iraun duen profila da.

### — Autoa erosteko asmoa —

(hurrengo hamabi hiletarako) (pertsonek % -a)



## 13 | familien kontsumo-egoeraren balantze hobearekin

2017ko hirugarren hiruhilekoan, euskal familien erosketako eta inbertsioko erabakiekin eta prezioekin lotutako indizeen balantze bateratuak euskal familien konfiantzak izandako susperraldia agertzen du. Hala, agerikoa da,




Prezioen egonkortasuna. Euskal familiek inflazio baxuko joera aurreikusten zuten baina joera hori 2017an aldatu da, eta prezioak areagotzeari egotzi diote, nahiz eta igurikimen hori urtean zehar gutxituz doan (-29tik -6ra, hirugarren hiruhilekoan).

Erosketa-unekeo etengabeko hobekuntza. Erosketa-unearen balorazioa negatiboa da 2017ko hirugarren hiruhilekoan (-5), baina azken bi urtetan erregistratutako balioetatik aldenduz (-19 eta -8).

Erosketa igurikimen "ia positiboa". Erosketa-igurikimenak negatiboa izaten jarraitzen du (-2) baina 2014az geroztiko baliorik txikiena da, eta horrek, jadanik etxebizitzarako kontsumoaren berreskurapena adierazten du.

Azken finean, enpleguaren egonkortasuna, prezioen egonkortasuna eta etxebizitzako errenta berreskuratzea esanguratsuak dira erosketa-unea baloratzeko eta hori gasturako erabaki esanguratsu bilakatzeko (eguneroko kontsumoa berreskuratzeaz harago).

— Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk —

	2015	2016	IV H-16	I H-17	II H-17	II H-17	Aldea	
Prezioen bilakaeraren igurikimenak	6	14	6	-29	-18	-6	12	
Erosteko unearen balorazioa	-19	-8	-9	0	-3	-5	-2	
Erosketak egiteko igurikimenak	-12	-10	-12	-12	-8	-2	6	

# ERANSKINA - INDIZEAK

---

Laburpena: familien konfiantzaren indizea  
Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera  
Beste adierazle batzuk

# I | Laburpena: familien konfiantzaren indizea

	2015	2016	IV H-16	I H-17	II H-17	III H-17	
Kontsumitzaileen konfiantza-indizea							
• EAE	-6	-5	-3	-3	5	0,4	▼
• Estatua*	0	-4	-4	-3	2	1	▶
• EB*	-4	-6	-6	-5	-3	-2	▶
○ Frantzia*	-17	-14	-13	-9	-8	-4	▶
○ Alemania*	0	-4	-2	0	3	4	▶
○ Erresuma Batua*	3	-3	-5	-5	-6	-7	▶
Osagaiak: familien konfiantza. EAE							
• Ekonomia orokorra	-4	-7	-5	-3	12	9	▼
• Etxeko ekonomia	-7	-5	-3	-8	-3	-5	▶
• Langabezia	3	4	9	10	23	7	▼
• Aurrezkia	-16	-12	-12	-12	-12	-9	▼
Kontsumoari buruzko igurikimenen beste indize batzuk. EAE							
• Prezioen bilakaerari buruzko igurikimenak	6	14	6	-29	-18	-6	▲
• Erosteke unearen balioztapena	-19	-8	-9	0	-3	-5	▶
• Erosketak egiteko igurikimena	-12	-10	-12	-12	-8	-2	▲
Erosketa handiak. EAE.**							
• Etxebizitza	1,8	1,8	2,0	3,6	3,2	3,2	▶
• Autoa	3,5	5,2	5,4	5,6	6,8	6,4	▶

↔ (± 2 puntuko aldea)

\* III. hiruhileko datuak uztaila-abuztuko batez bestekoari dagozkio.

\*\* Erosteke probabilitatea (asko, nahiko, gutxi)

## II Euskal familien konfiantza, ezaugarrien arabera

	2015	2016	IV H-16	I H-17	II H-17	III H-17	
<b>Kontsumitzaileen konfiantza-indizea</b>							
• EAE	-6	-5	-3	-2	5	0,4	▼
Adin-mailak							
• 25 eta 39 urte bitartean	-4	-3	-6	2	9	6	▼
• 40 eta 54 urte bitartean	-4	-1	2	-1	5	1	▼
• 55 eta 64 urte bitartean	-9	-6	-3	-6	4	-1	▼
• 65 eta 74 urte bitartean	-8	-12	-6	-11	2	-7	▼
Lan egoera							
• Landuna (soldatapekoa / norberaren konturakoa)	-1	1	2	2	9	6	▼
• Langabea	-19	-18	-11	-9	-1	-11	▼
• Ez-aktiboa (erretiratuak, etxeko langileak, ikasleak, ..)	-8	-9	-6	-9	2	-6	▼
Familia-unitatearen hileko errenta							
• 1.700 €-rainokoa	-21	-21	-15	-18	-8	-14	▼
• 1.701 eta 2.800 € bitartekoa	-3	-4	-2	0	4	0	▼
• 2.800 €-tik gorakoa	9	7	8	12	20	16	▼

⇔ (± 2 puntuko aldea)

### III Beste adierazle batzuk

	III H - 16	IV H - 16	I H - 17	II H - 17	III H - 17 <sub>(p)</sub>	(azkena)
BPG	3,0	2,9	2,8	2,9	--	II hir.
Familien kontsumoa	3,1	2,9	3,0	3,0	--	II hir.
Afiliazioa	-0,5	1,8	-0,4	1,3	-0,6	abuztua
Erregistratutako langabezia	-3,7	-3,2	0,3	-2,6	-2,3	abuztua
Txikizkako merkataritzaren salmenta- indizea	0,1	0,2	1,0	1,8	--	II hir.
Etxebizitzen salerosketa	-16,0	-7,1	31,5	-0,7	--	II hir.
Ibilgailuen matrikulazioa	-14,9	12,0	-7,0	-30,6	-14,0	abuztua

1. BPG eta etxeetako kontsumoa. Ekonomiako kontuak, Eustat. Bolumen kateatuaren indizea; urtetik urterako tasa.
2. Afiliazioa. Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorra. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
3. Erregistratutako langabezia. SEPE. Hileko datuen hiruhilekoko batez bestekoa; aurreko hiruhilekoarekiko aldakuntza.
4. Txikizkako merkataritzako salmenta-indizea. Eustat. Hiruhilekoen arteko tasa.
5. Etxebizitzen salerosketa. Ondare-eskualdaketen estatistika, EIN. Hiruhilekoen arteko tasa.
6. Ibilgailuen matrikulazioa. Faconauto. Hiruhilekoen arteko tasa.


Erreferentziako datua hiruhilekoko batez bestekoa denetan, eskura dagoen azken datua (hil batekoa edo biko) hartzen da kontuan, azken aldakuntza kalkulatzeko.

Erreferentziako datua hiruhilekoko metatua denetan, eskura dagoen epealdiaren gainean -azken hila aurrekoarekiko, edo azken bi hilak aurreko biekiko- kalkulatu da azken aldakuntza

# ERANSKINA - METODOLOGIA

---

kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?  
zer esan nahi du indizearen bilakaerak?




# I | Kontsumitzaileen konfiantza indizea: zer da?

Hainbat eragilek datozen hamabi hiletan izango duten bilakaerari buruz pertsonek duten iritzia laburtzen duen adierazlea da kontsumitzailearen edo familiaren konfiantza-indizea. Hona hemen adierazleok:

- 1) Ekonomia orokorraren egoera
- 2) Etxeko ekonomiaren egoera
- 3) Langabeziaren bilakaera
- 4) Etxean aurrezteko duten gaitasuna

Euskal familietako pertsonen konfiantza-indizea<sup>1</sup> kalkulatzeko, Europako Batzordearen metodologia (galderen diseinua eta indizeen kalkulua) erabiltzen da.



<sup>1</sup> Consumer Confidence Indicator; dokumentu honetan, familien konfiantza-indizea erabili dugu, kontsumitzaileen iritziaren berri emateko.



## II | Zer esan nahi du indizearen bilakaerak?

Konfiantza-indizea **pertsonen iritziarekin osatzen da.** Ekonomia orokorrak, etxeko ekonomiak, aurrezkiak eta langabeziak gaurkoaren aldean urtebete barru izango duten egoera balioztatzen dute horiek.

Bost mailatan (askoz okerragotik askoz hobetorainoko bitartean) sailkatzen da.

- Arlo bakoitzean lortutako erantzunen tratamendu agregatua indize partzial bat da.
- Eta familien konfiantza-indizea lau indize horien (kontsumitzaileen konfiantzaren osagaien) batez besteko balioa da.

**Osagaiak: konfiantza-indizea**

**Hauen indize partzialak:**

- Ekonomia orokorrarena
- Etxeko ekonomiarena
- Aurrezteko gaitasunarena
- Langabeziaren bilakaerarena

Baikortasun



Nola interpretatzen dira lortutako emaitzak?

- Balio positiboak (100era artekoak): egoerak hobera egingo duela uste dute familia gehienek.

Ezkortasun



- Balio negatiboak (-100era artekoak): egoerak txarrera egingo duela uste dute familia gehienek.

# Fitxa teknikoa eta metodologia

---

## Fitxa teknikoa

- Inkesta EAEko 800 laguni egin zaie.
- Irailaren 4tik 15era (2017ko III. hiruhilekoa)
- Banaketa: sexua, adin-taldeak, jarduerarekiko erlazioa eta errenta-mailak.
- % 95eko konfiantza, +/- % 3ko lagin-errorea

## Metodologia

Kontsumitzaileen konfiantza-indizea:

- Europako Batzordea

[http://ec.europa.eu/economy\\_finance/db\\_indicators/surveys/index\\_en.htm](http://ec.europa.eu/economy_finance/db_indicators/surveys/index_en.htm)

Eskerrik asko  
Gracias

